

Badugu

**AUKERA**

Vamos  
hacia el cambio

2022ko uztaila

**Info**

## Lan eta bizi DUINAK LANGILEAK BABESTU KRISIA KAPITALAK ORDAIN DEZALA!

### GIPUZKOAKO ZERBITZUGUNEEN HITZARMENEAN AURREAKORDIOA DUGU

Egoera koiunturalak batere lagundu ez duen, eta bi urte eta erdi luzez zabaldu diren negoziazio gogorren ondoren, hitzarmen sektoriala sinatzeko moduko aurrerapauso garrantzitsuak egin ditugu.

Pasa diren bi urteetan, ezinbesteko sektore izendatu gaituzte eta, hala jardun gara edozein egoerari aurre eginez. Izurritearen eraginez izan dugun inflazioa, are gehiago handitu da oinarrizko beharrak asetzeko produktuen prezioaren garestitze kontrolgabearekin. Egiari zor, zaila izan da partida hau jokatzeko eta, hala ere, hurrengoak dira lortu ditugun aurrerapausoak:

- **IRAUNALDIA:** 2020-2024.
- **SOLDATAK:**
  - 2020 urtea: % 0.8ko (2019ko KPIa) ordainketa ez kontsolidatua.
  - 2021 urtea: % 0.3ko (2020ko KPIa % -0.5 izan zen) ordainketa ez kontsolidatua.
  - 2022 urtea: % 6.8ko igoera (2021eko KPIa + % 0.3a).
  - 2023 urtea: 2022ko KPIa.
  - 2024 urtea: 2023ko KPIa.
- **ULTRAKTIBITEA:** mugagabea.
- **BERDINTASUN PLANAK:** artikulua berria.
- **LIZENTZIAK:** 2019az geroztik aktualizazioa.

2019az geroztik galduta genuen erosahalmena berreskuratzea lortu dugu 2020 eta 2021 urteetarako atzerapenen bitartez. Gainera, 2022 eta 2023 urteetarako KPIaren bermea lortu dugu. Hori gutxi ez eta, ikusirik egoera ezegonkorra denboran luzatu daitekeela, 2024 urterako ere KPIaren arabeko igoera bermatzea lortu dugu. Beste edukiei erreparatuta, ultraktibitatea mugagabea izatera pasako da aurretik genuen akordioa modu nabarmenean hobetuz. Bestalde, berdintasun planen gaineko artikulua sortzea ahalbidetu dugu, era honetara, legeak dioena baino zehaztasun gehiagorekin, etorkizunean sexu-genero edo adin kontuengatik diskriminaziorik eza eta lanpostuetarako aukera berdintasuna lortuko ditugu. Bukatzeko, 2019az geroztik zeharo iraungituta geratu diren lizentziak egungo errealitatera ekartzea lortu dugu.

Azaldutako guztia ikusirik, zinez uste dugu hitzarmen sektoriala sinatzeko abagunea dugula, baina bistan da oraingo negoziaketetan lortu gabe geratu diren edukiak ere badirela, haien alde borrokatzeko konpromisoa adierazi nahi dugu heldu den negoziazioetan. Konpromisoarekin, antolaketarekin eta borrokarekin edozer lortu dezakegulakoan gaude.

#### OARSO-BIDASOA

Salis hiribidea 30-behea 20.304 (IRUN)

Ikutza kortsarioa kalea 11-behea 20.100 (ORERETA)

☎ 943 62 47 14 / 943 34 45 41 ✉ a.arruti@lab.eus

2022ko uztaila